

Haur eta gazte literatura

Hiltzaileak
Leire Salaberria

Pamiela, 2013
32 orrialde



Hiltzaile maiteak

VIII. ETXEPARE SARIA eskuratu zuen album honek izenburu eta azal deigarriak ditu. Hiltzaileak terminoa beti erlazionatzen dugu gaizkileekin, indarke-riarekin, jokabide maltzur eta gizartearen kontrako-ekin. Eta zalantzak uxatzeko azalean bertan ageri zaigu aizkora bat... gizaki baten gorputz zati bat eta gizaki horren eskutik oratuta aizkora: hiltzaileak daukan arma.

Leire Salaberria ilustratzaileak bigarrenez irabazi du Etxepare saria eta oraingoan bi bereizgarri nagusi dituen obra batekin; testuari dagokionez hitz joko batean oinarrituriko testua dugu, irudiak, aldiz, piro-grabatuen bidez eginiko ilustrazioak dira; eta teknika hori argumentuarekin ere erlazio-naturik dago –izan ere, orriak erretzen edo erredu- ra markak egiten lortzen dira irudiak–.

Albumeko orrietan barrena abiatzen den irakur- leak kolore gutxiko orriekin egiten du topo, marroi, beltz, gris... koloreak erabiliz eginiko irudi sin- pleak –haurrentzako literaturan hain landua den sinpletasuna–; “Hiltzaileek uniformeak janzten dute. Eskularruak eta gomazko bota beltzak”. Eta libu- ruaren azaleko irudia ageri zaigu bere osotasunean –azala eta kontrazala hartuz–; “Batzuek bibotea daramate, baina ezinezkoa da ikustea, burua ere estalita eramaten baitute” eta hainbat lagun ekintza ugari egiten ari diren bitartean urrutian, pertsona –hiltzaile– baten lehen plano dugu, buruan begiak

bakarrik ageri zaizkiola buruko estalki antzeko batek ezkutaturik.

Hiltzaileek egiten dituzten hamaika gauza ikusi- ko ditugu hurrengo orrietan, bai eta haiei buruzko ezaugarriak –igerilari apartak, indartsuak, zain ego- ten dira...– harik eta liburuaren amaieran argitzen den arte nortzuk diren hiltzaile horiek: suhiltzai- leak!

Leire Salaberriaren liburua jolasa da: ez hitz jokoaren ondorioz bakarrik, baita orrietan irakur- tzean ageri diren detaile txikiengatik eta ilustratzai- leak eginiko proposamen literarioengatik ere. Eta hori guztia erraztasunetik, sinpletasunetik abiatuta- ko proposamen sortzaile bati esker. Izan ere, irak- kureak orrietan aurrera egin ahala, egileak propo- saturiko pisten eta deskribapenen ondorioz hasierako ustea aldatzen duela ikusiko du; hiltzai- leei buruzko aurreiritzi txarra izatetik sinpatia eta haien aldeko jarrera izatera pasatuko da. “Nork ez ditu maite hiltzaileak?” esaldiarekin aldaketa horri helduz.

Finean liburu bitxi eta erakargarria, jolas egiteko aproposa, umeeekin irakurtzeko eta haiei ikus eta irakur dezaten uzteko moduko proposamena. Eus- kal letretan azken urteotan ongi egiten ari direnen adibide argia. ■

Xabier Etxaniz Erle

INAKIBEREZIARTUA
Enbalajeak · Biltegiatzea eta Logistika · Zerra eta eraikuntza

25 urte baino gehiago paketatze industrialaren sektorean

Jauregi auzoa, 75 · HERNANI · (Gipuzkoa) · ☎ 943 552 828
www.inakibereziartua.com · mjm@inakibereziartua.com

badoa..

Ain_1 taldearen Badoa Badirau diskoa
Hemen eskuragai
<http://ain1.bandcamp.com/album/badoa-badirau>